



Oskar Matute

«Herritar askok politikariok utzi gaituzte aldi baterako»

Bilbo, 1972. EAEko legebiltzarkidea eta EBko sektore kritikoa burua da. Kontxi Bilbao kidea Eusko Legebiltzarreko mahaiko kargutik kendu zuten egunean berba egin genuen berarekin. Bertan eta hurbil zeuden ere sektore ofizialeko Javier Madrazo eta Antton Karrera buruak.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Jose Ramon Gomez

Oskar Matute EB-Berdeak-eko ildo kritikoa burua da. Alderdiaren VIII. Biltzarrean izan ziren gorabeherak hizpide hasi gara berbetan: “Diferentziek eragiten dute eguneroko bizitzan noski. Nik neure jarrera daukat, bakoitzak berea, tirabirak ez dira atseginak, baina horregatik ez ditugu lan harremanak apurtzen eta are gutxiago lagun artekoak. Izan ere, nire ildoak sektore ofizialarekiko bestelako iritziak dituelako inork ez du gure jarrera zalantzan ipini. Bakoitzak bereari eusten dio, munduari gerra deklaratu gabe”.

Legealdiaren hasieran, Ibarretxe Plana hizpide, hauxe esan zenigun ARGIAN: “Nazio espainola-

ren esentzia jarri dugu eztabaidan”. Legealdia ia agorturik, zer diozu?

Nazio espainolaren esentzia, zoritxarrez, opa-roa eta ukiezina dela. Jaurlaritzaren azken planek –Ibarretxerenak deituak– betiko harresien aurka talka egin dute. Harresiak zerikusia du PPK nahiz PSOEek duten nazioaren kontzeptio zentralistarekin. Berez Estatuko erakundeek dutena, funtsean berauek erabakitzen baitute. Berbarako, epailetzak. Euskadin bultzatutako ekimen guztiek –erabakitzeko berezko esparruaren bila eta normalizazio politikaren bila joateak– ulertezintasunarekin talka egin dute, eta batez ere, Espainia batua eta zatiezinen aurka. Nazionalismo espainia-

rra beti bezain sendo dago, noski, PSOEk gobernatzen duenean, modu disimulatuagoan.

Herri galdeketa iragartzetik –Ibarretxeren bide orria tarteko– hauteskunde kanpainara pasa gara. Zer irizti duzu gertatuaz?

Herri galdeketa iristeko bide orria deuseztatu da ahaleaginean berean. Hala ere, guretzat ekimena interesgarria zen ahaleginak demokrazia ordezkatzaileren atak gainditzeko zituelako, demokrazia parte-hartzaileren lantzeko urratsa zelako. EBrentzat funtsezkoa da herritarrak bere erabakien jabe izatea. Egia da, ekimena hondoratzen joan da errealtatearekin uztartu ahala, errealtatea gogorra, zekena eta konplexua baita. Batetik, Estatu burubelarri aritu da ekimena errealtatetik erauzteko, eta bestetik ETaren jarduerak gizartearen nahasmendua eragin du. Garbi dago: Estatuak, berak kontrolatzen ez duen prozesu oro zapuztuko du eta ETak ez dio protagonista izateari utzi nahi. Gatazkaren konponbiderako ebazpena eta erabakitzeko eskubidea hiritarren parte-hartzearekin batera gauzatzea ez da erraza.

EAE n zortzi legealdi bete dira eta azken hamarkadan bi bake prozesu abiatu. Zer iradoki dizu?

Nire sentsazioa da politikak utzi egin gaituela, denbora baterako berbonzikeria instalatu dela politikan: mesedeak lortzeko lagunkeria, eredu soziala eta ekonomikoa adabakiz josteko politika nagusitu da. Mendebaldean Estatuaren ereduak hondoa jotzen ari da eta politikaren eremua betetzen dutenek balbulak kontrolatzen dituzte ontziak ez zanda egin ez dezana. Politika egin ordez, gizakia nobletzen duen politikaz, herritarren harremanak sendotzeko behar den politikaz harro izan beharrean, herritar askok politikariok aldi baterako utzi egin gaituzte.

EB Eusko Jaurlaritzan ari da hirukoa. Zuk gidatzen duzun sektorea kritikoa agertu zen azken biltzarrean.

Bai. Hirukoarekiko gure leialtasunak EBren profila argi azaltzea eragotzi digulako. Euskal Herriko ezkerrearen profil gardenagoa behar dugu ezkerreko hautesleak ezkerre-

koak garelako eta euren beharretarako lan egiten dugula jabetu daitezela. EAJrekin aliantzak potentzialtasuna kendu digu...

(...)

Areago: EAJ demokrazia aroaren hasieratik Gobernuan izateak ez digu laguntzen. ETaren existentzia, bestalde. PSE-EE, PSOEko eta Madrildiko politika aplikatzeko sukurtsala da eta PP mendira joan zaigu. Horrek guztiak ezkerreko indarrei ahalmena kendu digu. Ezkerrek borrokarako

“Ezker antikapitalistak, herritarrekin batera, ez du bere lan ildo hipotekatu behar epe laburrera ater daitezkeen mozkinen truk”

grina eta konfrontazioa sustatu behar ditu. Gainera, horri guztiari krisi ekonomikoa gehitzen badiogu, zer egin dezakegu Gobernuan? Gure ildoak Biltzar Nagusian adierazi zuenez, herritarrei oso garbi utzi behar diogu non gauden. Guk ezin dugu botere enpresarialen galerak nola arindu behar diren aztertu, aitzitik, langile bakoitzaren lanpostua eta duintasuna defendatu behar ditugu. Hori da sektore kritikoaren gogoetaren funtsa.

“Euskara ez dakiena diskriminatua dagoela esatea errealtatea ez ezagutzea eta ukatzea da”

Ibarretxeren eta EAJren politika ezberdintzen dituzu?

Nire sentsazioa da Ibarretxek bere EAJko zuzendaritzako askok nahi baino harago eraman duela alderdia. Ibarretxek alderdikide askok nahi zuten abiadura baino bizkorragoa ezarri duela. Orain bera da berriz ere hautagai, merezimendu guztiekin, baina bere jendeak buruko min bat baino gehiago eraginda.

Herri galdeketatik hauteskundeetara eta gizartea lozorroan.

Gizartea batez ere nahastuta dago.

Patxi Lopez lehendakariak “euskara bultzatzea, baina alderdikertan erori gabe” proposatu du.

Bere ekimena guztiz elektoralra izan da, eta beste batzuek ere hari erantzutean halaxe egin dute. Dena den, PSEk lau urte izan ditu egungo euskararen politika indartzeko, euskara gutxitua baitago gaztelaniarekiko. Aukera izan du legealdian ez politika alderdikoia egiteko, euskara herri honen hizkuntza ofiziala bezala praktikan jartzeko baizik.

Politika askotarikoa eta demokratikoa aipatu du ere euskararentzat.

Ekitaldi hauek norbera nolakoa den azaltzen dute. Patxi Lopezek egin zuen moduko agerraldia egin bazuen, egin zuen Alderdi Sozialistaren profil *baskista* azaltzeko, baina batez ere kontziente direlako euskal gizartearen gehiengoarentzat –eta ezkerrekoentzat bereziki– ez direla indar baskista. Izan nahi duzuna aldarrikatzeko horrenbeste indar eta denbora erabiltzen badituzu arazoak dituzulako da. PSEk ez luke holakorik egin behar bere ekimen politikoa konprometitua izan balitz herri honekin eta ezkerreko baloreekin. Inork ez luke zertan *baskista* azaldu izan euskara defendatzeko.

Euskal hiztunak gaztelaniadun elebakarra diskriminatzen al du zure uestez?

Euskara ez dakiena diskriminatuta dagoela esatea errealtatea ez ezagutzea eta ukatzea da. Osterantzean, ukatzen da herri honetan ahalegin handiagoak egin behar direla herritar guztiak euskara erabil dezaten, beren hizkuntzan espresatzeko eskubidea ukatzen zaie, alegia. PSOEek eta PPK defendatzen duten Autonomia Estatutuan euskara herri honetako hizkuntza ofiziala bezala agertzen bada, benetan, haiek eta gainerako guztiok lan egin behar dugu herri honetako herritarrek beren hizkuntza ezagutu dezaten. Polemika hau antzua da.

Javier Madrazok EAren edota Jaurlaritzaren hizkuntz ereduaren erreforma hezkuntzan errefusatu du “imajinario nazionalista”ren barruan delako. Zer iruditzen?

Ekimenak bi osagai ditu. Bat, abiatzeko modua da, ona da, baina iris-



konkistatzeko aukerarik ematen. Alderantziz, ezkerreko planteamenduak landu eta sendotu behar ditugu etorkizunari begira. EBk ez badu ikusten gure ildoaren proposamenetan funtsik, hori hautesleek baloratuko dute. Nolanahi den ere, sektore kritikoa tesi hauen gaineko programa eratzeko saiatuko da.

Ba al dago nora begiratzerik?

Nik Frantziako Estatuan LCR alderdiak zabalduko bidetara begiratzen diot. LCR alderdi antikapitalista berriaren sorrera bultzatzen ari da. Ezkerra eta eskuina munduaren kontzeptzioan desberdinak dira. Eskuinak egungo munduaren oinarria den sistema kapitalista sostengatzen du, eta ezkerrearen jarduerak ez du kapitalismoa "hobetzeko" balio behar edo egoera larria pintura geruzez apaintzeko. Ezkerrearen sistemaren aurka oldartu behar du, Euskadin ekimen

kementsuak daude ezker antikapitalista antolatzeko.

Frantzia eratzeko ari den alderdia interesgarria da, ilusioz ari dira, ezkertiar izaera duintasunez bizi dutelako. Ideologiaren krisia aipatzen den garai honetan ezberdintasun sozialak gero eta handiagoak dira. Pertsona asko zapaltzen duen sistema dago, beste asko ondo baino hobeto bizi diren bitartean. Euskadin ere ezkerrek zentzua dauka. Gure burua ezkerrek jotzen dugunoi norabide horretan lan egitea dagokigu, osterantz, ezkerre ez da indartuko, areago ahulduko baizik.

LCRko buru Olivier Besancenot eza-gutzen al duzu?

Bai, harremana dugu, garaikideak gara. Niri inbidia garria egiten zait bere ekimena, nahiz kontziente naizen kulturalki urrun gaudela. Halaz ere, bere gogoetaren parte handia ezkerrearen sektore zapuztuak biltzeko oso baliagarria da. Hau da, ezker antikapitalistak, herritarrekin batera, ez du bere lan ildo hipotekatu behar epe laburrera ateratezkeen mozkinen truk. ■



"Aralarrekin akordioak ez du osagai taktikorik izan behar, estrategikoa baizik. Euskal ezkerrearen batasun estrategikoan sinesten dut eta ez hauteskundeetan hobeto ateratzeko kalkulu taktikoetan".

teko puntua ez dago zehaztuta, ekimenari gurasoen elkarte eta sindikatuarekin interakzioa zehaztea falta zaio, besteak beste. Alegia, bien bitartean lan egin beharra dagoela. Idearioari edo imajinarioari dagokionez... nik jendearen borondatean konfiantza daukat. Hau da, frankismo osteko eskola publikoan ikasi genuenok ez genuen arrasto frankistarik jaso. Askotan gehiegi kezkatzen gara imajinario kolektiboekin. Niri Euskal Herria hitzak ez dit zauririk eragiten, alderantziz, gozagarria zait. Ez dut mina hartzen Euskal Herria nazio bezala hartzean, ostera, ez dut beste modu batez ulertzen.

Nondik nora nahiko zenuke bideratzea hurrengo legealdia?

EBk zer egingo duen ez dakit, baina nik zer egitea nahi nukeen bai. EBk konpromisoak serio hartu eta kiniela elektoralak ahaztu behar ditu. Alegia, oso garbi azaldu behar dugu zer garen, zer egin nahi dugun eta zein ordezkatu nahi dugun. Aliantzak oso garbi azaldu behar ditugu: hautesleari hamar minututan azaldu behar

diogu orain arte egin duguna eta aurrerantz egingo duguna.

EB-Aralar koalizioa gauzagarria al da?

Alderdi barruko nahiz kanpoko politika egitean euskal ezkerre batzearen aldekoa izan naiz beti. Euskal ezkerre badu ahalmena baldin eta beratu batzen dituen ezaugarriak hobesteko gauza bagara. Nik Aralarrekin aurreko akordioa ilusioz defendatu nuen. Bistan denez, gorabeherak eta elkarrekin gaitzespenak izan dira, baina nik akordioa berriz ere lortzeko lan egin beharri eusten diot. Akordioak ez du osagai taktikorik izan behar, estrategikoa baizik. Euskal ezkerrearen batasun estrategikoan sinesten dut eta ez hauteskundeetan hobeto ateratzeko kalkulu taktikoetan.

Euskal ezkerrearen batzea eta hauteskundeetan akordio eraginkorra gauzatzea posible da. Aralarrekin, baita ezkerreko beste ildo batzuekin ere. Zutik-ekin, adibidez. Gainera, ez dugu Gobernuan zertan izan. Gobernuan kudeaketarako gure ahalmena erakutsi dugu. Uneon, Gobernuaren baitatik, EAJ-ren eta beste alderdien pulstioek ez dute ezkerrearen eremu zabalagoa